

Aurkezpena.

Paisaien errealitatetik: oratze artistiko, estetiko eta soziokulturala

Ana Arnaiz, Xabier Laka Antxustegi, Isusko Vivas Ziarrusta¹
Juan Antonio Rubio-Ardanaz²

Eusko Ikaskuntzaren *Zainak. Cuadernos de Antropología-Etnografía* ikerketa aldizkari zientifikoak, *Creación en Arte y Estéticas Aplicadas para la Ciudad, el Paisaje y la Comunidad [KREAREak]* (GIC-IT-1655-22) Euskal Unibertsitate Sistemako Ikerketa Talde Egonkortuarekin batera (Eusko Jaurlaritzan), Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Arte Ederren Fakultateko Eskultura eta Arte eta Teknologia Sailari atxikia, ale monografiko bat argitaratu du edizio berri honen baitakoa, 2023. urteko zenbaki arruntari dagokiona.

Aipatutako monografikoaren izenburuak, *Zainak* aldizkariaren 41. zenbakiarekin bat datorrenak: *Paisaien errealitatetik: oratze artistiko, estetiko eta soziokulturala*, akuilu eta ekimen gisa balio izan du, batez ere artearen, arkitekturaren eta diseinuaren alorretatik, bai eta antropologiatik nahiz, oro har, gizarte edota giza zientzietatik ere lan egiten duten ikertzaile eta profesionalak gonbidatzeko. Beroriek, lurraldearen eraldaketak eta definizio berriak ezagutzen saiatzen diren artikuluen proposamenak bidal ditzaten, diziplinarreko esparru handia barnebidu dezaketen tresna kontzeptual eta metodologikoen bidez. Ikuspegi horretan, bada, kulturalki eraikitako eta modu bateragarrian hautemandako paisaia-errealitate zehatzetarako aplikazio artistiko estetikoarekin eta soziokulturalarekin lotutako optikak atzeman baitaitezke.

Hilabete hauetan gauzatu den proposamenak aukera ematen du paisaien 'errealitatetik' idoritzeko eta aztertzeke, bai eraldatutako zonaldeak, bai desegiten eta txirotzen bere kaxa utzitako alderdiak, bai indeterminazio funtzionaleko eremuak, balio erantsi ugaridun enklabe 'jasangarri' bihurturikoak edo ez hainbeste; izan ere, artea eta arkitektura zein ikuspegi sozio-antropologikoak funtsezkoak izan dira horiek sortu, eratu, konfiguratu eta baldintzatu dituzten egiturak aztertzeke, kulturalki eta estetikoki, haien ondarea testigantza eran jasoaz eta etorkizunerako erronka-irudikapenak proiektatuz. Ikerketa-artikulu eta testuetarako deiak, ikertzaileak euren jarduera-ildoetatik interpreta eta hurbil zitzaketan erantzun original baizen iradokitzaileak ematera bultzatzen zituen, aurretiaz adierazitako oinarriekin bat egiten saiatuta.

Emaitza nabarmen eta aipagarri legez, hainbat artikulua jaso, hautatu eta pare itsuen sistema normalizatuaren bidez (*peer review*) ebaluatu izan dira. Artikulu horien ezagutza eta diziplinarloek bateratasuna dute aipatutako alderdi batekin edo batzuekin, eta *Zainak* aldizkariaren "Originalak aurkezteko arauetara" egokitzen dira, formaltasunari eta formatuari dagokienez.

1. ZAINAK ALDIZKARIAZ: EGITEKOA ETA GAURKOTZE JARRAITUA

Orain dela bost urte, hain justu ere, Eusko Ikaskuntzak Espainiako Estatuan egungo erregimen politikoa ezarri eta horren ondorioz Autonomia Erkidegoa garatu ondoren maiztasunez egiten zuen argitalpen-ahaleginari jarraipena emateko orduan antzematen zen beharraren berri ematen genuen orri hauetatik bertatik. Garai hartan, 1978-1980 inguruan, ezohiko indarra lortu zuten, bai eta itxurazko oztoporik gabeko jarraipen-aukerak ere, 1939-1977 bitartean Francoren diktadura-aldia eta haren osteko aro (post)frankistaren aurretik Euskal Herrian funtzionatu zuten erakunde eta ekimen soziokultural, komunitario eta politikoen.

Duela bost urte (2019), hain zuzen ere, *Zainak* aldizkariaren lehen zenbakia atera genuen, online bakarrik argitaratzen zena, eta hortaz, OJS edizio irekiaren sistema onartuz. Sistema hori hobetzeko eta sendotzeko bidean zegoela sumatzen zen, aldizkari zientifikoaren, akademikoaren

1. Ikertzaile nagusiak, euskal unibertsitate-sistemako ikerketa-talde finkatuen/akreditatuen hurrenez-hurreneko deialdietan, 2013tik 2023ra bitartean. Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) irakasle eta ikertzaileak, Eskultura eta Arte eta Teknologia Sailean.

2. *Zainak. Cuadernos de Antropología Etnografía* aldizkariaren zuzendaria. Extremadurako Unibertsitatea.

Cita bibliográfica recomendada para este artículo:

ARNAIZ, Ana; LAKA ANTJUSTEGI, Xabier; VIVAS ZIARRUSTA, Isusko; RUBIO-ARDANAZ, Juan Antonio

"*Aurkezpena. Paisaien errealitatetik: oratze artistiko, estetiko eta soziokulturala*",

Zainak. Cuadernos de Antropología-Etnografía, nº 41, 2023; pp. 9-12, <http://dx.doi.org/10.13140/RG.2.2.36488.80649>

eta ikerketa-aldizkariaren nazioarteko panoraman gailendu arte, eta, aldi berean, 'zientzia irekiaren' ideia errotuak sustatutako onurei ongietorria emanez.

Azken bosturtekoan, halandaze, *Zainak* aldizkariak autore batzuk erreskatatu eta beste egile batzuk irabazi ditu, antropologiari lotutako aldizkariaren berezko izaerari eta ikerketa-teknikei eutsi dien bitartean, baina diziplina parekideei espazio garrantzitsuak eskainiz, hala nola arte plastikoari, historiografiari edo komunikazioari. Horrek kudeaketa-jarraibideak birdefinitzea ekarri du, bai eta argitalpen-organoak, batzorde zientifikoa eta erredakziokoa eguneratzea ere. Esandakoaz gain, berrikitan kanpoko aholku-batzorde bat antolatu da, diziplinarteko osaera argikoa, gai editorialen kontsulta eta gidaritza-funtzioa beteko duena, eta jakintzaren nahiz ezagutza arloen aurpegi askotarikoak edo zeharkakoak biltzen dituena. Gure ustez, XX. mendeko lehen hamarkadetan (1918-1920 gutxi gora behera) agertu ziren Koadernoen izaera eta tradizio errekupeatzen du, orduan jaioberria zen Eusko Ikaskuntzaren atal zientifikoei atxikiak, Joxe Miel Barandiaran zenaren konpromiso irmoarekin.

Egungo ale monografikoaren bitartez, beste urrats bat eman dugu zientzia-aldizkarietan eta ikerketa akademikoen aldizkarietan praktika normalizatu bat onartzeko bidean. Horrez gain, OJS sistemara egokitu aurretik *Zainak* aldizkarian ohikoa zen baliozko formula bat berrerabili dugu. Horretarako, monografiak proposatu ditugu, gai konkretu batzuen inguruko testu zientifiko akademikoak eta multzokatuak biltzen zituztenak, hiri-antropologiaren, itsas antropologiaren, nutrizioaren eta elikaduraren antropologiaren zein begirada herrikoiaren kutsua darien erlijioen antropologia bezalako ikasgaiei eutsiz, funtsean, diziplina anitzekoak diren egiteko eta pentsatzeko moduak hobetsita. Bultzada horrekin, une jakin honetan zenbaki monografiko bat (41) gehitu dugu, Eusko Jaurlaritzaren *KREAREak* Ikerketa-taldearekin egindako lankidetzaren emaitza. Bere izateko arrazoia eta jarduera arte plastikoetatik datozen eta arkitekturarekin, paisaiarekin, hiriarekin, monumentaltasunarekin edo arte publikoarekin, arteen sintesiarekin eta aplikagarritasunezko estetikekin lotzen duten harreman estrukturalen esparruan oinarritzen da, komunitatearenganako posible edota behizat desiragarria izan daitekeen transmisiorako, sorkuntza irakaskuntzarekin eta ikerkuntzarekin lotzeko gai izan daitekeena.

2. *KREAREak* IKERTALDEA DELA ETA: ERROTURIKO IKERKETA-JARDUERA

Hasieran azaldu den bezala, *Hirirako, Paisaiarako eta Komunitaterako Arte eta Estetika Aplikatuaren Sorkuntza [KREAREak]* Eusko Jaurlaritzak aintzatetsitako Ikerketa-taldea da. Organikoki, UPV/EHUko Arte Ederren Fakultatean kokatua dagoena. Eskultura eta Arte eta Teknologia Saileko, zein Musika, Plastika eta Gorputz Adierazpidearen Didaktika Saileko irakasle eta ikertzaileek osatzen dute, bertoko gehi nazioarteko (Uruguai, Brasil, Ekuador) goimailako ikerketa eta hezkuntzako beste erakunde batzuetako laguntzaileekin batera.

Duela hamarkada bat hasi zen Taldea sortzen, ikertzen, transmititzen eta zabaltzen, lehen aldiz 2013ko Ikerketa-Taldeak deialdian, Eusko Jaurlaritzak akreditazioa aitortu zionean. Gaur egun, haren existentzia eta kaudimena berretsi dira, Eusko Jaurlaritzaren mendeko Hezkuntza Saileko Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuordetzaren ebazpenen arabera. Aitorpen hori sendotuz joan da 2016ko eta 2022ko deialdietan. Hala ere, bikaintasun-maila duen Talde finkatuaren egoera ez da azken hamarkada honen emaitza bakarrik izan, baizik eta haren zimenduak artearen, oro har, bereziki eskulturaren eta bere aplikazio-eremuen (espazio arkitektonikoa, paisajistikoa, hirikoa, etab.) zereginetatik lantzen aritu dira. Horren ondorioz, 1990eko hamarkadaren hasieran, gutxi gorabehera, Arte Ederren Fakultateko (UPV/EHU) Eskultura Saileko zenbait irakasle sistematikoki galdezka hasi ziren, artearen eta eskulturaren alorrari buruzko unibertsitate-ikerketaren muinoan inskribatuta zeuden problematikak zirela eta. Norabide horrek egonkortasuna eta sendotasuna lortuko zuen unibertsitate eta autonomia mailako ikerketa-proiektuak bereganatzearekin, bai eta pixkanaka kide berriak sartzearekin ere. Errekonozimendu instituzional eta administratibo handiagoak iritsi zirenean, sendotzen ari zen taldeak, lehenik, beste unibertsitate batzuetako ikertzaileekin parte hartu zuen nazio mailako proiektuetan, eta, ondoren, Ikerketa eta Garapeneko (I+G) proiektu bat hartu zuen bere baitan (talde kontsolidatu gisa, jada); Ikerketa, Garapen eta Berrikuntzako Plan Nazionalaren Ikerketa eta Kudeaketako Zuzendaritza Nagusiaren eskutik Estatuko Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Agentziaren barruan lehia-konkurrentzian emana. Proiektu horren izenburua honako hau izan zen: *Arteak eta lurraldeko espazio komunaren transformazioak [TECTar]*, erauzketa-espazioak hautematean eta identifikatzean ardaztua, berreskuratze-dinamikak aktiboki sortzeko aukera ematen duten lurralde-enklabe gisa, artea eta eskultura lurraldean eta paisaian esku hartzeko

gaitasuna duten beste diziplina batzuekin integratuz. Hori dela eta, liburuaren argitalpena funtsezko mugarrietako bat izan da: Sostenibilidad estética. *Las artes y las transformaciones del espacio común del territorio*, Bilbo: ehupress, 2021. Ana Arnaiz eta Xabier Laka izan ziren ekarpen idatziaren editoreak.

I+G proiektuarekin eta Ikerketa-taldearekin lotutako mugari paralelo aipagarri bat izan da, iritziak trukatzeko eta elkartzeko nazioarteko mintegiak abian jarri eta antolatzea. 2017an (*Sormenak, Ikerketak eta Irakaskuntzak paisaiaren jasangarritasun estetikorako*, Iruñea eta Altzuza), 2018an (*Irakaskuntzak, ikerketak eta sormen lanak, arte eta arkitektura partekatua eta bere eraginak*, Bilbo, eta *Trazabilitatea paisaiaren aldaketa fisiko eta estetikoan*, Donostia), 2019an (*Oteiza: natura-laborategia-Natura*, Arantzazu), 2020an (*Eraikuntzak eta deseraikuntzak: ekintzak, kontraesanak eta paradoxak*, Bilbo), Ikerketa taldearen bakarkako erakusketak diseinatu, komisariatu eta ekoiztea ahaztu barik. Erakusketa horiek Euskal Herriko Unibertsitatearen (UPV/EHU) Abandoibarrako Bizkaia Aretoan ere izan dute egoitza, bai 2014an (*Arte praktika larrialdi estetiko eta ekologia alarmaren artean*, Artea eta Ekologia III. Seminarioaren baitan), obra grafikoz, argazkiz eta ikus-entzunezkoz osatua baitzegoen, I+G Proiektuaren babesean: *Artea eta ekologia: natura-ingurunea babesteko eta lurralde degradatuak berreskuratzeko estrategiak*, non modu aktiboan parte hartu baitzen, azpitaldea eratuz, bai 2021ean (*Paisaiaren mutazio estetikoak*), eskultura, argazki, kartografia, planimetria eta bideo-materialarekin. Horren aurretik, *Paisaiak mugikor I* (2017) erakusketa Iruñeko Huarte Arte Garaikideko Zentroan egin zen, obra grafikoa, fotografikoa eta infografikoa barne. Azken aldian, '*Sormenak, Irakaskuntzak, Ikerketak*' premiaz baliatuz, '*Transmisioa*' nozioarekin osaturik, egindako aurreko topaketetako lanari berriro helduz, 2023ko udazken-negua eta 2024ko udaberriaren artean, Ikertaldea, artista gonbidatuekin tailer-sorta antolatzen ari da; horietako bi Arte Ederretako Fakultatean (UPV/EHU) egin dira dagoeneko, Ana Laura Aláez eta Ainara Elgoibar bertan zirela, graduako, graduondoko eta doktoregoko ikasleei eta ikasketak amaitu dituzten pertsona interesdunei zuzenduta.

Artearen egitasmo edota egikera komun, bateratu eta partekatuen beste emaitzetako bat, orain aurkezten dugun monografikorako bidea irekitzen duena da; ikerketa-ildoak zedarritu ahala, hainbat azterlanekin osatu dira: ur-fronteetan eta ibaiertzetan hiri nola egituratzen eta eraikitzen den, egonaldietarako eta haur-jolasetarako hiri-espazio/guneak, hiri-altzari esanguratsuen presentzia monumentu bilakatuak, industriaren ondorengo hirietatik birkokatutako aurri sinbolikodun arrasto zein hondakin anakronikoak, eta abar. Azterlan horien artean, *Ausart. Arte Ikerkuntzako Aldizkaria/ Journal for Research in Art* aldizkariaren 8. liburukiaren 2. zenbakia (2020) editatu zen. UPV/EHUko Arte Ederren Fakultateak argitaratua, 2013tik hamar urteko ibilbidearekin, honako goiburua zuela: *Artearen eta arkitekturaren artean konpartitutako irakaskuntza, ikerketa eta sorkuntzak eta haien efektuak*. Bertan, nazioarteko akademikoen nahiz artisten testu ugari bildu ziren. Horrek eginbeharrak leundu baititu *Zainak* aldizkariaren zenbaki monografikoarekin lotzeko, paisaien errealitateari gehiago erreparatzen zaion koiuntura batean, gakoari oratzeko modu artistiko, estetiko eta soziokulturaletik.

Ezin dugu ahantzi, ezta baztertu ere, gure Ikerketa-taldearen aurreko egonkortze-periploak definitu zituzten esaldi edo leloek Jorge Oteiza euskal eskultorearen aipamen zuzena izan zutela, haren sintetizazio esentzian. Izan ere, Oteizak hirirako eta paisaiarako proiektuetan eta artearen transmisioaren aldeko eginahaletan izan zuen eragina, horixe izan baitzen, orain duen konposizioan Taldea existitu aurreko etapetako azterketa-zutabeetako bat. Hala ere, beharrezkoa eta egokia da azpimarratzea artista honen pentsamendura eta obrara hurbiltzearen azpian dauden ezaugarriek Taldearen filiazioan eta kidetasunean jarraitzen dutela presente, iziotuta mantentzen den sutontzia izanik, etengabe eta derrigor izendatua izatera heldu gabe. Irakasle, ikertzaile eta sortzaile bilakaerak haize transmoderno horren ferekaz nabarmentzen du bere burua, sugar iraunkorra beti bizirik gordetzen duena, 'artista-antropologo-mitografoarekin' lerrokatuta, Oteizak idazkietan bere burua izendatzen zuen bezalaxe; eta horrek *Zainak. Cuadernos de Antropología-Etnografía* aldizkariarekin lerrokadura angeluak baimentzen baititu.

3. ZENBAKI MONOGRAFIKO HONETARAKO EKARPENEN HARIAN

Zainak aldizkariaren zenbaki monografiko honek, beraz, propio Ikerketa-taldeko kideen ekarpenak eta mundu akademiko, profesional edo artistikoari lotutako beste pertsona batzuen proposamenak biltzen ditu, komunitate zientifikoari egindako gonbidapenari erantzun diotenak.

Logikoa denez, hautaketaren eta ebaluazioaren kalitate-irizpideei eta aldizkariak frogatu behar duen jarraikortasunaren mesedetan betetzea dagokion neurrian, zenbaki honetarako jaso diren idazlanetan etnografia eta antropologia-gaiak erabili dituzten ikerlanak onartzea gomendagarria ikusi da, ikerketa-artikuluaren kategoriarekin, baina, bere horretan, monografikoarena ez den beste atal batean bilduak.

Zenbaki monografikoa gorpuzten laguntzen duen azterlan bakoitza ikerketa-lan originala eta argitaragabea da, nahiz eta, gehienbat, gaur egun Taldearen ikerketa-lerroak egituratzen dituzten edota helburuak lortzeko denboraltasunean garrantzitsuak izan diren ikerketa zabalagoekin zerikusia izan. Kanpokoagoak diren beste ikerketa batzuk, era berean, ikerketa-adierazpen bereziei dagozkie, eduki soziokultural, artistiko eta historikoaren magalean esangura nabariko zereginetan dabiltzan diziplina anitzeko taldeen ekintzen alderdi zehatz bat edo beste barne hartzen baitute.

Aipatu gabe doa, monografikoak jaso dituen eta ikusgarritasuna eman zaien adibideen artean, bai *Zainak* aldizkariarentzat bai *KREAREak* Ikerketa-taldearentzat interesguneak txertatzen dituzten proposamenak direla: hala nola artearen –eskulturaren– ‘egiten jakitearen’ aspektu esanguratsu batzuk oraindik mantentzearen eta baliatzearen konplexutasunaz mintzo, milurtekoaren aldaketari dagokion garaian garaiko birkokapen mende-akabukoaren aurrean, “Industria-paisaien errealtatea” metropolietan eta haien periferia zaharkitu, desegin eta abandonatuetan, ‘bizitako inguruneetatik’ hasi eta ‘etorkizunera zuzenduak’ dauden birsorkuntza ugarietaraino, “Eskultura edukitzailearentzat” lan eta ‘irakurketa espazioetan’, norabide eszentrikoak sortuz, eta haien atmosferan bilduta dauden ‘hirien literaltasunetik’ igaroz. “Konpromiso estetikoa eta teatraltasunaren” zurrumbiloi biltuta, postmodernitatean asegabeko diskurtsoak eta desioak goraiatzeko; “Oroimenaren betebeharra” inoiz ere alde batera utzi barik, “Oroitzapenaren eta ahanzturaren arteko” bortizeetan nozituriko ‘oroi-beharraz’ (berau kontzientea izan ala ez). Aldo Rossi arkitekto-hirigilearen ‘Munduko antzektokitik’ “*Munduaren Batasunera* abiatzen den bidaiaraino”, omendutako poeta bisual baten ibilbidetik, alegia –itxuraz urruti egon arren– artearen enbor edo zurtoin komunerantz dekurrenteak eginez, beronek komunitateari begirada luzatzen dionean.

Zenbaki bakoitzaren azalak banan-banan ilustratuak izateko erabakiari sendo eusteko asmoz (*Zainak* aldizkariaren 39. zenbakian hartutakoa), Alberto Díez Gómez artistak burutu ditu, oraingoan, monografiko honetarako azal grafikoak, ‘landare’ motako irudiekin eta berauek testuinguruan espresuki kokatzen dituen idazki labur batekin: *opuntia miragarria!* Honek, begirada ezberdin eta dibergentetik so-eginda ere, agian nolabaiteko ‘sintonia atonala’ mantenduko luke ‘*Ciudad-planta/Planta-(de)-ciudad*’³ izenaz nominalki deskribatutako marrazki biribilekin, artikuluetako baten lagungarri eta osagarri direnak.

3. Hitz-jokoak ez du posible egiten euskarazko itzulpenik. Salbuespen lez, gaztelaniazko izenburua mantendu dugu.